

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO KUADRILLA

Praktiketako funtzionarioen izendapenak

2024ko irailaren 20an onetsi eta Aiarako Kuadrillako ediktu taulan argitaratu dira egiturazko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko prozesuan praktiketako funtzionario izateko izendapenak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan. Hori guztia, jarraian zerrendatzen diren plazak betetzeko hautaketa prozesuak amaitu ondoren.

Hori guztia bat etorri 2022ko abenduaren 21eko 146. zenbakiko ALHAOn argitaratu ziren aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrekin eta 2023ko apirilaren 19ko BOEn argitaratu zen deialdiaren laburpen batekin.

Ikusi dira lanpostuak betetzeko deialdiko lehiaketa epaitu duen epaimahai kalifikatzaileak proposatutako behin betiko sailkapenak eta izangaiek aurkeztutako dokumentazioa.

Hurrengo lehendakaritza dekretuen arabera, praktiketako funtzionario hauek izendatu dira, eta Aiarako Kuadrillako lanpostu hauetara atxiki dira:

PLAZA	TALDEA ETA AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA ETA KLASEA	PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIO IZENDATUTAKO PERTSONA	NANA	PROP. PUNT. DEKRETUA PROP.	IZENDAPEN DEKRETUA	PRAKTIKALDIA
Gizarte ongizateko administrari laguntzailea	C2	Eskala: administrazio orokorra; azpieskala: administrariak	Maria José Olabarria Micolta	***8865**	80/2024	104/2024	3 hilabete
Artxiboko administraria	C1	Eskala: administrazio orokorra; azpieskala: administrariak	Blanca Otegui Vergara	***6868**	81/2024	102/2024	3 hilabete
Administrari laguntzailea	C2	Eskala: administrazio orokorra; azpieskala: administrariak	Ibon Lazkano Aretxabala	***4370**	82/2024	103/2024	3 hilabete
Hirigintza, obra eta ingurumeneko teknikari balioaniztuna	A1	Eskala: administrazio berezia; azpieskala: teknikariak	Aintzane Arbaizagoitia Olabarrieta	7888*****	89/2024	101/2024	6 hilabete
Sustatzaile ekonomikoa	A1	Eskala: administrazio berezia; azpieskala: teknikariak	Gianfranco Ghiro Alonso	7904*****	90/2024	105/2024	6 hilabete
Hizkuntza politikako normalizatzailea (euskara)	A2	Eskala: administrazio berezia; azpieskala: teknikariak	Alberto Agirre Zubeldia	7243*****	92/2024	106/2024	6 hilabete

Lanpostuen atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte. Dagokion taldeari dagozkion soldataren eta aparteko pagen balioak diren ordainsariak jasotzea dagokio, Praktiketako Funtzionarioen Ordainsariak ezartzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan aurreikusitako egoeretako bat gertatzen denean izan ezik. 16. oinarrian ezarritakoaren arabera, praktikaldia hiru hilabetekoa izango da C taldean, eta sei hilabetekoa A taldean.

Izendapen horiek administrazio ondorioak izango dituzte praktiketako izendapenen dekretuen dataren (2024ko irailaren 23a) hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario izendatuko dira, eta izendapena ALHAOn eta lege ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita legez ezarritako zin egitea edo hitzmatea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko.

Publizitate ondorioetarako, dekretuak osorik argitaratu dira Aiarako Kuadrillako ediktu taulan eta <https://www.cuadrilladeayala.eus/eu/> webgunean, eta interesdunei jakinarazi zaizkie.

Dekretu horien aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahalko da hilabeteko epean. Epe hori amaitu ondoren, administrazioarekiko auzi errekurtsua baino ezin izango da jarri, edota, hala badagokio, berrikusteko errekurtsu berezia (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123., 124., 125. eta 126. artikulua).

Arespalditza, 2024ko irailaren 20a

Lehendakaria

ENCINA CASTRESANA ASTARLOA